DBH069

# PINTZA GORRIAK

Halako batean, atzera begiratu nuen eta zine-aretoko azkeneko eserlekuetan karramarroak zeuden, adi-adi filma noiz hasiko zain. Nik ezin sinetsirik hor zeuden eta pelikula hasterako soinu arraroak egiten eta mugitzen hasi ziren. Pelikula asko gustatzen zitzaiela ematen zuen, begirada disdiratsua zutelako pantailan.

Ez dakit zergatik, baina ez ninduen harritzen karramarroak egotea. Bere pintza gorriekin erreztasunez hartzen zituzten palomitak. Bat-batean norbaitek hitz egin zidan, ordea, ez zegoen inor gehiago ni eta karramarroak izan ezik. Atzera begiratu nuen berriro atximaurka nabaritu nuelako nire lepoan. Inor ez, alabaina ezker besoa aurreratu nuenean nire esku pintzadun handiago eta gorriago bat ezin nuen poltsikoan sartu

Kantari